



## **Josu Lartategi Yustos**

Josu Lartategi Yustos Euskal Filologiako lizentziatua da (1992). Gaztelania-Euskara Itzulpeneko Masterra ere egin du (1995). 1998an 4. Hizkuntza Eskakizunaren ziurtagiria lortu zuen. 2005-2007 aldian Helduen Euskalduntzearen Oinarrizko Curriculumaren C2 mailarako irakasle-gaikuntza eskuratu zuen, eta harrezkero C2ko aztertzaile izan da HABEko egiaztatze-prozesuetan. Une honetan euskara-irakasle dihardu Ulibarri Euskaltegian, non C2ko ardurak dituen, bai halaber euskara-trebatzaile Gizarte Urgazpenerako Foru Erakundean. Itzultzaile, zuzentzaile zein literatur sortzaile jardun du hainbat argitaletxetan (Susa, Txalaparta, Desclée de Brouwer, Aizkorri, Elkar, Alai, etab.). Prentsa-kolaboratzaile, artikulugile eta literatur kritikari ibili da zenbait egunkari eta aldizkaritan (Euskaldunon Egunkaria, Berria, Deia, Senez, Hegats, etab.), baita hizkuntza-normalkuntzako teknikari ere Euskadiko Udalen Elkartean.